

# SSHE ekonomikoa



S  
i  
n  
d  
i  
k  
a  
l  
H  
e  
z  
i  
k  
e  
t  
a

2.

Enpresaren  
egoera  
ekonomikoa

Balantzea

LAB

Hezkuntza

**2.**

**Enpresaren  
egoera  
ekonomikoa  
(balantzea)**

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

# Moduluaren programazioa eta helburua.

Modulu hau bi jardunalditan garatuko da. Koadernotxo hau aurretik irakurrita eduki behar da eta, era berean, bere eztabaidan ere aktiboki hartu behar da parte lan honen planteamendu orokor eta partikularrari buruz ezberdintasunak, ekarpenak, e.a. planteatuta. Helburuak hauek dira:

- Ez-ikasientzat zaila eta ulergaitza dela sarri errepikatu diguten gai baten oinarritzko ezagupenaz jabetzea, gai bat ere, berau barne, ez delako ulergaitza baldin bere azalpena hartzaileen premietara hizkuntza eskurakorra erabilia egokitzen bada.
- Gai honek duen zailtasun teknikoa aitzakiatzat ipinita, beldurra sartu nahi digute langile jaun/andreei, enpresen egoera ekonomiko errealetik ahal denik eta urrunen mantentzeko asmo bakarraz.
- Honi buruz zenbat eta gutxiago dakigun eta, beraz, zenbat eta gaitasun gutxiago daukagun enpresarien kudeaketa zalantzan jartzeko, hainbat eta zaurkorragoak izango gara beren aurrean eta hainbat eta errebindikazio-gaitasun gutxiago edukiko dugu. Era berean, eta honen ondorioz, ahalbide gutxiago edukiko dugu gure lanpostuen zainketa eta gure lan-baldintzen hobekuntza arriskuan jartzen dituzten egoerei itzurtzen sarri lagunduko lukeen aitzin-neurridun sindikalismoa burutzeko.
- Beraz, lan honen azken helburua ez da ezagutza sakon eta zehatzez hornitzea, enpresetan gertatzen diren egintza ekonomikoetara eta informazio hori laburbiltzen dituzten dokumentuetara heldu eta interpretatzea ahalbideratuko digun oinarritzko tresna bat ematea baino.

Idazlea: **Bittor Goti (Ekonomilaria)**

Argitaratzailea: **Ipar Hegoa Fundazioa**



# 2.

S.H.E.  
ekonomikoa



SINDIHA I HEZIKETA

## Enpresaren programazioa eta helburua (balantzea)

**ENPRESAREN DOKUMENTAZIO EKONOMIKOA**

**BALANTZE BAT, ZER DA?**

**AKTIBOA, ZER DA?**

**AKTIBOAREN ZIKLO LUZEA. AKTIBO FINKOA**

**AKTIBOAREN ZIKLO LABURRA. AKTIBO ZIRKULATZAILEA**

**PASIBOA, ZER DA?**

**PASIBOAREN ZIKLO LUZEA. KAPITAL IRAUNKORRAK**

**EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK EDO KAPITAL ZIRKULATZAILEA**

**ENPRESAREN ZIKLO LABURRA ETA ZIKLO LUZEA. ERROTazio-FONDOA**

ERANSKINAK

1. KONTUSAIL BIKOITZA
2. LEASING KONTABILITATEA
3. KAPITAL SOZIALA, ORDAINDU GABEKO KOPURUAK
4. PENSIO ETA ANTZEKO BETEBEHARRETARAKO HORNIDURA
5. INDUSTRIA BIRMOLDAKETARAKO HORNIDURA

ARIKETAK

HIZTEGIA

ARIKETEN SOLUZIOA

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

Enpresaren dokumentazio ekonomikora hurreratzeko orduan, gutariko gehienok uzkurtasun-moduko bat sentitu ohi dugu. Gutxi erabili izan dugun terminologiak eta arazo ekonomikoaren inguruan sortu den halako mitologia batek (enpresetan gertatzen dena, hots: aberastasuna nola lortzen den eta nola banatzen den alegia, gehiengo batek zuzen interpretatzerik nahi ez duten haiek bultzatuak) kontabilitatearen eta enpresan gertatzen diren egintza ekonomikoen interpretazioaren mundutik urrundu gaitu. Ondoren arlo honetan oinarritzko diren elementu batzuk ekarriko ditugu, enpresako egintza ekonomikoen mundu iluragarrian sakontzera bultzatzeko balioko dutelakoan.




Enpresaren  
egintza  
ekonomikoei  
buruzko  
informazioa,  
kontabilitateko

# Enpresaren dokumentazio ekonomikoa


dokumentu batzuetan zehazten da.

Dokumentu hauek lantzeko, egitura eta metodologia homogenoak erabili ohi dira, enpresan gertatzen dena edozein begiratzailerik lokabek interpretatzeko moduan eginak eta era berean enpresa ezberdinetan gertatzen ari dena erkatzea ahalbideratzen dutenak. Metodologia eta egitura hauek Kontabilitate Plan Orokorrean definitzen dira (ikus hiztegia).



Informazioa. Kontabilitateko dokumentuek enpresan gertatzen dena ezaqutzea ahalbideratzen dute.

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)



Hontabilitatea. Urteko kontuek urte osoan lortu den kontabilitate-informazioa biltzen dute.

### URTEKO KONTUAK.

Edo beste era batera esanik, urtean zehar lorturiko kontabilitate-informazioa laburbiltzen duten dokumentuak Merkataritzako Kodean ezartzen dira. Enpresaren administratzaileek urtero idatzi behar dituzte dokumentu horiek eta enpresatik kanpoko finantza eta kontabilitate-azterketaren oinarri dira. Dokumentu horiek, hurrengo hauek dira: **Egoera Balantzea, Galdu/irabazien kontua eta Txostena.**

Dokumentu hauek kontabilitate-liburuetan biltzen dituzte enpresak urtean zehar lortu duen informazioa, liburu horiexek baitira kontabilitate-informazioaren eukarri fisikoa. Kontabilitate-liburu nagusiak, hurrengo hauek dira:

- **EGUNKARIA LIBURUA:** Hemen kontabilitateko idazpen guztiak erregistratzen dira.

Kontabilitate-idaztoharren bat kontsultatu nahi baldin badugu, hori hemen-txe bilatu behar da. Adibidez: kontsultatu nahi baldin badugu XX hornitzaileari 9x.VI.13an egindako ordainketa, hortxe bilatu beharko dugu.

- **LIBURU NAGUSIA:** Hemen epealdian erabilitako kontu guztiak aurkitzen dira. Kontu jakin bateko mugimenduren bat kontsultatu nahi baldin badugu, mugimendu hori nagusian isladaturik egongo da. Adibidez: X hilabetean XX bezeroarekin egin diren eragiketa guztiak bilatu nahi baditugu, honaxe jo beharko dugu.

- **INBENTARIO ETA BALANTZEEN LIBURUA:** Honek bere baitan hartzen ditu: inbentarioak, egoera-balantzeak, galdu/irabazien kontua eta batura eta saldoen egiaztapen balantzeak.

**BALANTZEA.** Balantzea, enpresaren ondareak<sup>1</sup> une jakin batean duen egoeraren azgazki moduko bat da. Bi zati ezberdin ditu: **AKTIBOA** eta **PASIBOA** eta biek dute beti

batura bera (ikus 1. eranskina). Enpresako egoera ekonomikoaren bilakaeraren analisi dinamiko bat egin nahi baldin badugu, beharrezko zaigu elkarren segidako zenbait balantzaren azterketa egitea.

**AKTIBOA**, enpresaren titulartateko diren ondasunen (makina, pabilioi, izakin eta abarren) eta eskubideen (bezeroei, beste enpresa batzuei eta abarri egindako kredituen)<sup>2</sup> inbentario ordenatu bat da. Aktiboa finantzaketa-ikuspuntutik behatzen baldin badugu, aktiboa agertzen diren kontusailek enpresak finantzatu behar duen guztia biltzen dute.

Aktiboa era honetan ordenatzen da: ondasunek eta eskubideek dirutan eraldatzeko erraztasun gutxien daukatenetik hasi eta gehiago daukatenera.

**PASIBOA**, enpresak egin dituen eta enpresaren bizitzan zehar itzultzea (PASIBO GALDAGARRIA) eskatuko zaizkion zorren (banku, hartzekodun eta abarretik lortu dituen kredituen) gehi enpresaren FONDO BEREKIAK deritzenen (ondare garbia EDO PASIBO EZ-GALDAGARRIA ere deitua), bazkideen ekarpenak biltzen dituenen (KAPITAL SOZIALA) eta dibidendu bezala banatu ez diren etekinen (ERRESERBAK) multzo ordenatu bat da. Finantzaketa-ikuspuntutik ikusten da pasiboa, enpresaren finantzaketa-iturrien zerrenda dela (enpresak finantza-baliabideak lortzeko dituen bideen zerrenda alegia).

Pasiboa, galdagarritasun txikienetik handienera ordenatzen da. Goiko aldean kontusail ez-galdagarriak agertzen dira (kapitala, erreserbak, ...) eta beheko aldean epe laburrera galdagarri diren kontusailak (Gizarte Segurantzak, Ogasun, hartzekodun eta abarretik dituen zorrak) (Ikus 1.1. ariketa)

# Balantze bat, zer da?

## XXX Enpresa

## 9x. 12.31ko Balantzea

ACTIBOA		PASIBOA	
Eraikinak	135	Fondo Berekiak	100
Makineria	65	Hartzekodunak	55
Izakinak	44	Banku Kredituak	45
Bezeroak	40		
Bankuak	16		
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>200</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>200</b>

<sup>1</sup>Gure ondare pertsonalaren egoera zein den jakiteko, guk daukaguna zor dugunarekin erkatzen dugu. Horixe da, hain zuzen, balantzean egiten duguna ere.

<sup>2</sup>Eragin positiboa daukate enpresaren ondare-egoeran.

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

### ENPRESAREN ONDARE

#### GARBIA:

Gorago esan dugu balantzearen bidez enpresaren ondarea zehazten dugula. Ikus dezagun, bada, nola: Aktiboari (enpresak duenari alegia) kentzen baldin badiogu pasibo galdagarria (enpresak zor duena hain zuzen), enpresaren aberastasun garbia aterako zaigu edo, beste era batera esanda, enpresaren Fondo Berekiak edo Ondare Garbia. Aldagai honekin enpresaren balio teorikoa lortzen dugu (Ikus 1.2. ariketa)

**Aldagai honek balio negatiboa duenean**, porrot teknikoaren egoeran<sup>3</sup> gaude eta, teorian, enpresa jabe den ondasun eta eskubide guztiak likidatuko bagenu, honek ez luke eskuratuko hirugarrenekin egin dituen zor guztiei aurre egiteko adina baliabide.

Berez, ez da zuzena enpresa ezberdinen ondare garbia besterik gabe erkatzea (ez da gauza berdina 10 milioiko ondare garbia edukitzea, guztira 20 milioiko aktiboa edo pasiboa dagoenean edo guztira 10.000 milioiko aktiboa dagoenean). Gonbaraketa hau egiteko RATIOren bat erabili behar da (ikus hiztegia eta 1.3. ariketa) eta zehazki hurrengo hau proposatzen dizuegu:

#### KAUDIMEN OSOKO RATIOA: Aktiboa Osoa<sup>4</sup> / Pasibo galdagarria

Ratioa > 1 == > Ondare garbi positiboa

Ratioa < 1 == > Ondare garbi negatiboa = porrot teknikoa



Ondarea. Pasibo eskagarriari aktiboa kentzen badiogu, enpresaren aberastasuna zein den jakingo dugu.

<sup>3</sup>Teknikoa deitzen diogu porrotaren aitortpen judiziala egon daitekeelako zein ez. Porrot teknikoaren egoerak ez du zerikusirik konkurtso-prozedura jakin bat egotearekin edo ez egotearekin).

<sup>4</sup>Itxurazko ibilgetua kendu diogu.

# Aktiboa zer da?

Kontabilitate  
Plan Orokorrak hurrengo  
egitura hau zehazten du  
Aktiboarentzat:

## **A) Galdatu gabeko ordainketengatiko Akziodunak.**

### **B) Ibilgetua.**

#### **I) Ezarpen-gastuak.**

#### **II) Ibilgetze inmaterialak.**

1. I+D gastuak.
2. Emakidak, lizentziak, patenteak, markak.
3. Merkataritza-fondoa.
4. Aurrerakinak.

#### **III) Ibilgetze materialak.**

1. Lursailak eta eraikinak.
2. Instalazio teknikoak eta makineria.
3. Beste instalazio, erreminta eta ostilamendu batzuk.
4. Aurrerakinak eta hasitako obrak.

#### **IV) Finantza-ibilgetzeak.**

1. Partaidetzak taldeko sozietateetan.
2. Sozietate lotetsiei emandako kredituak.
3. Partaidetzak.
4. Sozietate lotetsiei emandako kredituak.
5. Finantza-tituluak.
6. Beste kreditu batzuk.

#### **V) Akzio berekiak.**

## **C) Zenbait ekitalditan banatzeko gastuak.**

### **D) Aktibo Zirkulatzaila.**

#### **I) Akziodunei galdaturiko ordainketak.**

#### **II) Izakinak:**

1. Merkataritzakoak.
2. Lehen gaiak eta gai suntsikorak.
3. Fabrikatzen hasitako ekoizkinak.
4. Ekoizkin bukatuak eta merkantziak.
5. Aurrerakinak.

#### **III) Zordunak.**

1. Salmenta eta zerbitzu-prestazioenga tiko bezeroak.
2. Zordunen taldeko enpresa.
3. Zordun diren sozietate lotetsiak.
4. Beste zordun batzuk.

#### **IV) Aldi bateko finantza-inbertsioak.**

1. Partaidetzak taldeko sozietateetan eta enpresa elkartuetan.
2. Akzio berekiak.
3. Beste balore higigarri batzuk.

#### **V) Epe laburreko akzio berekiak.**

#### **VI) Altxortegia.**

#### **VII) Aldizkakotzeagatiko doiketak.**

Gorago esan dugun bezala aktiboa, bera osatzen duten ondasun eta eskubideek eskudiru bihurtzeko daukaten erraztasun txikia-

go edo handiagoaren arabera sailkatzen da. Likidezia-maila honen arabera bi ziklo bereizten dira:

## ZIKLO

### LUZEA:

(Aktiboaren A epigrafea + B epigrafea + C epigrafea).

Aktibo hauekin epe luzera baino ezin da eskuratu

beren likidezia (lursailak erosten baldin baditugu, inbertsio hori ez dugu berehala berreskuratuko; horiek eskudiru bihurtuko dira enpresaren ekoizpen-jardueran erabiltzen ditugun epealdietan) (Ikus 1.4 ariketa). Ziklo luzearen barruan iruzkin labur batzuk egingo ditugu bera osatzen duten kontusail nagusiei buruz:

# Aktiboaren ziklo luzea Aktibo finkoa

## IBILGETUA.


Ibilgetua, enpresako jardueran erabiltzen diren eta (sal daitezkeen arren) salmentara destinatutik ez dauden eta, beraz, enpresan urte bat baino luzarago egongo diren elementuek osatzen dute.

Hurrengo ibilgetu-mota hauek daude:

- Ibilgetu materiala.
- Ibilgetu inmateriala.
- Finantza-ibilgetua.
- Itxurazko ibilgetua.

### Ibilgetu Materiala

Ibilgetu materiala, hurrengo motako ondasun ukigarriek eratzen dute, hots: enpresako jardueran erabili, ekitaldi bakar bat baino bizitza erabilgarri jakin luzeagoa izan eta desgastea (fisikoa, teknologikoa, ...) jasaten duten ondasunak alegia. Bere helburu nagusia enpresaren ekoizpen-jardueran lankide izatea da eta, beraz, berez ez daude saltzera destinatutik. Ez



daude merkatuko prezioaren arabera baloraturik eta balantzean bere erosketa-prezioan edo ekoizpen-kostuan agertzen dira (ikus hiztegia), baina beti, hala ere, balorazio-zuzenketa egokiak egin ondoren.

Ibilgetu material nagusiak, hauek dira: Lursailak eta berezko ondasunak, eraikinak eta beste eraikuntza-mota batzuk, instalazio

Ibilgetu materiala. Enpresa baten instalazio teknikoek ibilgetu materiala deitu ohi zaionaren parte bat dira.


teknikoak, makineria, tresneria, urte bat baino epealdi luzeagoan erabiltzen diren erremintak, ostilamendua, informazio-prozesurako ekipoa (hardwareak), garraio-elementuak, ...

Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, ibilgetu materialaren kostu historikoari 3 zuzenketa-mota egin dakizkioke:

**1.** Ibilgetu materialak sistemaz jasaten du berreskuragarri ez den balio-galera bat (erabilpen fisikoak bere desgastea dauka, zaharkidura teknologikoa, ...). **Amortizazioari** buruz hitz egiten ari gara. Hau urtero zuzkitu behar da eta urte batetik bestera aldatu ezin diren irizpide batzuen arabera gainera.

**2.** Sistemaz ematen ez diren eta, beraz berreskuragarri direnez **hornikuntzetan** kontuan hartzen diren balio-galerak (Adibidez, gure bulegoetatik 5 metrora autopista bat egitea erabakitzen duen foru aurreproiektu bat onartu da. Autopista benetan egingo balitz, horrek une honetan auzune lasai batean dauden bulegoen balio-galera bat suposatuko luke. Autopista benetan eraiki arte ez dago behinbetiko balio-galararik eta behinbetiko galera gertatu arte zuzkitu beharko litzateke hornikuntza)

**3.** Sistemaz eman ez arren, berreskuragarri ere ez diren balio-murrizketak (Oinaztarri batek pabilioi baten erdia gauzeztantzen du). Honek, ibilgetu materialaren kostu historikoaren gutxipen bat suposatzen du.




### Ibilgetu inmateriala

Hau, balorazio ekonomikoa egin dakiekeen aktibo ukiezinek eratzen dute (Diru-ordainketa bat sortzen duen ekonomia-transakzioa egon da). Ibilgetu materiala egiten den bezala baloratzen dira eta balorazio-zuzenketa berdinak izaten dituzte.

Bere baitan hurrengo hauek sartzen dira: Ikerketa eta Garapen Gastuak, Administrazio Emakidak, jabetzagatik edo "industria-jabetza" erabiltzeko eskubideagatik ordaindu behar diren kopuruak, merkataritza-fondoa (ikus hiztegia), eskualdaketa-eskubideak, aplikazio informatikoak (software) eta finantza-akurapeneko ondasunak (ikus leasing-kontabilitateari buruzko 2. eranskina).

Ikerketa. Ibilgetu materiala barruan ikerketa eta garapen-gastuak, administrazio-emakidak, e.a. sartzen dira.

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)



Inbertsioa. Finantza ibilgetuaren barruan taldeko enpresetan edo elkartuetan egindako finantza-inbertsioak sartzen dira.

### Finantza-ibilgetua

Hau, enpresak egin dituen finantza-izaerako inbertsio iraunkorrek osatzen dute (beraz, hemen ez dira sartzen altxortegiko sobekinekin ateratzeko akzio, obligazio eta abarretan egindako inbertsioak, -aldi bateko finantza-inbertsioak, alegia-). Iraupen-asmu hori, beste enpresa baten kontrol-helburuak eraginda sortu ohi da.

Finantza-ibilgetuaren baitan hurrengo hauek aurki daitezke:

- Taldeko enpresetako edo enpresa elkartuetako finantza-inbertsioak (ikus hiztegia). Aztertzen ari garen enpresak beste enpresa batzuetan duen partaidetza atal honexetan ikusten da.

- Beste Finantza Inbertsio Iraunkor batzuk.

- Epe Luzera eraturiko fidantzak eta gordailuak.

- Akzio eta obligazio berekiak. Inbertsio hauek erosketa-kostuan baloratzen dira. Ez dira amortizatzen, baina, hala ere, gainerako balorazio-zuzenketa guztiak aplikatzen zaizkie (hornikuntzak, sistemaz gertatzen ez diren behinbetiko galerak).

### Itxurazko ibilgetua (K.P.O.eko 20 eta 27. taldeak)

Hauek, aktibo ukiezinak izateaz gain, merkatu-baliorik ere ez dute. Baina, hala ere, gastu hauek izaera juridiko formala dute, zenbait epealditan dute eragina eta derrigorrezkoak dira enpresa martxan ipini eta funtzionatzeko. Kontabilitate Plan Orokorrek berariaz zehazten du zeintzuk diren ibilgetuan aktibatu beharreko gastuak. K.P.O.ak, era berean, zehazten du ezen, gastuen bat planak berariaz zehazturikoen artean sartu behar den ala ezari buruz dudarik txikiarik baldin balego, zuzentasun-printzipioari jarrai (ikus hiztegia), gastu horiek epealdiko gastutzat kontabilizatu beharko lirakeela eta, beraz, itxurazko ibilgetu bezala aktibatuko lirakeela.

# Aktiboaren ziklo **laburra**.

## Aktibo **zirkulatzaila**


**ZIKLO LABURRA** (Aktiboaren D epigrafea). Ziklo Laburra, ekitaldian zehar eskudiru bihurtzea, saltzea edo kontsumitzea normalean espero diren ondatsun eta eskubideek osatzen dute. Aktibo zirkulatzailaren hurrengo atalak azpimarratuko ditugu.

**IZAKINAK.** Izakinak, enpresaren jarduera normalarekin zerikusia duten artikulua dira, enpresaren ziklo laburrean (edo eragiketen zikloan) eskudiru (edo antzeko beste aktibo batzuetan) bihurtzeko behin eta berriro modu errepikakorrean ekoitzi edo merkaturatzen direnak. Izakinak, bere ekoizpen eta merkataritza-jarduera garatzeko enpresak eduki behar dituen stockak dira. Gehienetan enpresaren biltegietan gordeta egon ohi dira. Finantza-azterketaren ondorioetarako **BIHURGARRI BALDINTZATUA** deitu ohi zaio (eskudiru bihurtuta eta dirutan eraldatuta amaituko duelako, baldin salmenta benetan burutzen bada).

Talde honetan hurrengo hauek sartzen dira: merkatugaiak (ikus hiztegia), lehen materialak, hasitako ekoizkinak, ekoizkin erdibukatua, ekoizkin bukatua eta azpiekoizkinak eta hondakinak, ...

Ekoizpen-kostuan edo erosketakostuan baloratzen dira.

**BENETAKO BIHURGARRIA:** BEZEROAK, KOBRATU BEHARRERAKO MERKATAL EFEKTUAK, BESTE



ZORDUN BATZUK ETA ALTXORTEGIKO SOBERAKINEN EPE LABURREKO INBERTSIOAK: Kontusail hauek benetako bihurgarritzat hartzen dira kontabilitate-azterketaren ondorioetarako, hau da: zuzenean eralda daitezke edo (ko-brantzaren bidez) altxortegi bihurtu.

Definizioak. Enpresaren biltzean gorderiko izakinei, finantza-analisan, egingarri baldintzatua ohi zaie.

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

### Bezeroak eta kobratu beharreko merkatal efektuak:

Merkataritzako eragiketetan gauza normala da saltzaileek erosleei kreditua ematea. Enpresa-munduan erosketak 30, 60, 90 egunera ordaintzen dira, hau da, epeka ordaintzen dira. Bezeroen kontusaillean, beraz, bezeroei oraindik kobratu ez zaien salmenten zatia isladatzen da. Bezeroen kontuaz gain kobratu beharreko efektuena ere egon daiteke; hemen ere bezeroei emandako kreditu bat isladatzen da, baina berezitasun batekin, hemengo truke-letra batean<sup>5</sup> formalizaturik egon ohi dela alegia.

Merkataritzako kreditua bezeroei emateak sarri erraztu egiten ditu salmentak (ondorio positiboa); baina bestalde gehitu egiten ditu finantzatu beharreko aktiboak, finantzaketa-premia handiagok sortzen ditu (aktibo berri horiek finantzatzeko baliabideak bilatu behar ditugu eta horrek kostu bat du (ondorio negatiboa).

**Beste zordun batzuk edo zenbait zordun.** Hemen kontusail ezberdinak biltzen dira baina guztiek dute izendatzaile komuna, hau da, kontusail guztietan isladatzen direla enpresak ematen dizkien kredituak bezero eta enpresaren jarduera propioarekin zerikusi zuzena dutenak ez diren hirugarrenei (administrazio publikoak barne).

**Aldi bateko finantza-inbertsioak** edo altxortegiko soberakinen epe laburreko inbertsioak. Aktiboaren D.IV atalean agertzen



Ordainketa. Enpresaren munduan erosketak 30, 60 eta 90 egunera ordaindu ohi dira.

dira eta beste batzuen artean hurrengo hauek biltzen ditu: ekonomia-ekitaldiko une puntualetan geratzen diren altxortegiko soberakinak errentagarri bihurtzeko enpresak burutzen dituen eragiketak (espekulazio-helburuaz egindako epe laburreko akzio eta obligazioen erosketak, epe laburreko ezarpenak, altxortegiko letren erosketak, baina banku-entitatearen batek epe laburrera berresteko hitzarmenarekin, ...).

**ALTXORTEGIA** edo azterketa-ondorioetarako berehala **ERABILGARRIA**. Aktiboko D.IV atala. Hemen kutxako eta bankuetako kontusailak biltzen dira. Kontu hauetan, epemuga oso hur duten ordainketei erantzuteko behar diren saldoak baino ez dira agertzen. Kutxaren bidez kopuru txiki-ko ordainketak egiten dira eta bankuetako kontu korronteen bidez garanti handiagoko ordainketak.

Interesgarri da esatea kontu hauetan saldo handiegia egoteak enpresarentzat errentagarritasun-galera bat suposatzen duela beti.

<sup>5</sup>Kreditu bat truke-letra batean formalizaturik egoteak, ondorio hauek ditu:

\* Juridikoak: ezordainketaren aurrean letrak berme gehiago du, indar betearazlea.

\* Finantza-arlokoak: truke-letra banku-entitate batean deskonta daiteke, hau da: bezeroak letra ordaintzeari baldintzaturik dagoen banku-kreditu bat eska daiteke. Aktiboan merkatal efektuen kontusaila agertuko zaigu eta pasibotan epe laburreko banku-zorren saldoak gehitzen dituen kontrakontusaillean deskontaturik.

# Pasiboa, zer da?

Kontabilitate Plan Orokorrak hurrengo egitura hau zehazten du pasiboarentzat.

## A) Fondo Bereziak

### I Kapital harpidetua.

### II Jaulkipen-saria.

### III Birbaliopen-erreserba.

### IV Erreserbak.

1. Legezko erreserba.
2. Akzio berekientzako erreserba.
3. Sozietate nagusiaren akzioetarako erreserba.
4. Estatuetako erreserbak.
5. Beste erreserba batzuk.

### V Aurreko ekitaldietako emaitzak.

1. Geldikinak.
2. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak.
3. Galerak konpentsatzeko bazkideek egindako ekarpenak.

### VI Galdu/irabaziak (etekina edo galera).

### VII Ekitaldian emandako konturako dibidendua.

## B) Zenbait ekitalditan banatu beharreko sarrerak.

1. Kapital-dirulaguntzak.
2. Trukaneurri-diferentzia positiboak.
3. Zenbait ekitalditan banatu beharreko beste sarrera batzuk.

## C) Arrisku eta gastuetarako hornikuntzak.

1. Pentsio eta betebeharretarako hornikuntzak.
2. Trukaneurri-diferentzia positiboak.
3. Beste hornikuntza batzuk.
4. Lehengoratzeko-fondoak.

## D) Epe Luzeko Hartzekodunak.

### I Obligazio-jaulkipenak.

### II Kreditu-entitateekiko zorrak.

### III Taldeko enpresa eta enpresa elkartuekiko zorrak.

### IV Beste hartzekodun batzuk.

### V Akzioen gaineko ordainketa ez-galdagarri ordaindu gabeak.

## E) Epe Laburreko Hartzekodunak.

### I Akzio-jaulkipenak.

### II Kreditu-entitateekiko zorrak.

1. Maileguak eta beste zor batzuk.
2. Interesengatiko zorrak.

### III Taldeko enpresa eta enpresa elkartuekiko zorrak epe laburrera.

### IV Merkatal hartzekodunak.

1. Eskabideengatik harturiko aurrerakinak.
2. Erosketengatik eta zerbitzu-prestazioengatik dauden zorrak.
3. Ordaindu beharreko efektuetan irudikaturiko zorrak.

### V Beste zor ez-merkatal batzuk.

1. Administrazio Publikoak.
2. Ordaindu beharreko efektuetan irudikaturiko zorrak.
3. Beste zor batzuk.
4. Ordaindu gabeko abonamenduak.
5. Epe laburrera harturiko fidantzak eta gordailuak.

### VI Trafiko eragiketentzako hornikuntzak.

### VII Aldizkakoketengatiko goitasunak.

Gorago esan dugun bezala pasiboa, bera osatzen duten zorren galdagarritasun txikien edo handienen arabera sailkatzen da. Gu kontusail ez-galdagarri-

etatik (kapital eta erreserbetatik) hasiko gara ia-ia berehala galdagarri izango diren kontusailetara (hornitzaileak) iritsi arte.

Pasiboaren ziklo luzea.

# Kapital iraunkorrak

**EZ-**

**GALDAGARRIA: KAPITAL SOZIALA, ERRESERBAK ETA ZENBAIT EKITALDITAN BANATZEN DIREN SARRERAK**



**KAPITAL SOZIALA:** Enpresa baten kapitalak jabe edo bazkideen ekarpena irudikatzen du. Ekarpene honek, gehien ematen diren sozietate-moten kasuan (sozietate anonimoak, erantzunkizun mugatuko sozietateak, ...), bazkideen erantzunkizunari jartzen zaion muga bat suposatzen du.

Kapitalaren kontua, aldagaitz mantendu ohi da enpresaren balantzean, bere zabalkuntza edo murriztapen bat ematen ez den bitartean; hau, sozietate anonimoen kasuan, derrigorrez erabaki behar da akziodunen batzar nagusian eta eskritura publikoan agerian jarri (merkataritzako erregis-

troan agertuko da) estatutuetan zehaztutako formarekin eta zergapean egongo da (informazio gehiago nahi baldin bada, jo Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bateratura eta Erantzunkizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legea berrira).

Kapital-zabalkuntzak bazkideek egindako ekarpenen (diru edo ondasunen) bidez buru daitezke edo kapitalean erreserbak sartuta.

Kapital sozialaren zifra ez da beti bazkideek benetan jarritako kopuruaren berdina (bazkideek oraindik jarri ez dituzten kopuruak egon daitezkeelako. Ikus 3. eranskina).

Hapital soziala. Enpresaren kapitala, jabeek edo bazkideek egindako ekarpenak osatzen du.

**ERRESERBAK.** Erreserbak dira, enpresak lortu eta dibidendu gisa akziodunen artean banatu ez diren etekinak; beraz, enpresan inbertituta geratzen diren etekinak dira. Akziodunen artean banatu ez diren arren, hauen aberastasuna ere gehitzen dute, erreserben gehikuntzak bazkideek elkarrean duten partaidetza handitzen duelako.

**GALDU/IRABAZIAK.** Enpresak ekitaldian lortu duen sozietateen zergaren osteko emaitza, Pasiboko A.VI atalean biltzen da. Hau nola banatuko de dibidenduetan eta erreserbetan, gero agertuko da txostenean.

**ZENBAIT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK.** Atal honetan sartzen den kontusail garrantzitsuena, kapital-dirulaguntzena da. Kapital-dirulaguntzak Administrazio Publikoek edo beste sozietate batzuek ematen dituzte; eta ematen dituzte enpresak bere oinarritzko egituraren (pabilioi, erraminta-erosketa, ...) finantzaketan erabiltzeko; ez dira, beraz, eragiketa arruntentzako dirulaguntzak, enpresaren ekoizpen-jarduera arrunta finantzatzeko erabiltzen diren horietakoak (hauek ez dira atal honetan biltzen).

Esan behar da kapital-dirulaguntzak, ekitaldiko emaitzetan aparteko etekin bezala birkokatuz doazela, dirulaguntzak finantzaturiko aktiboa amortizatuz doan heinean. Dirulaguntza emaitzetan birkokatuz doan heinean doa pasibotik desagertuz ere (amortizatuz doa).

## **EPE LUZERA GALDAGARRIA: ARRISKU ETA GAZTUETARAKO HORNIKUNTZAK ETA EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK**

**Arrisku eta gastuetarako hornikuntzak.** Kontabilitate-printzipio garrantzitsuenetako bat, zuhurtasun-printzipioa da (ikus hiztegia). Printzipio honen arabera arrisku aurrikusgarriak eta ekitaldian edo aurreko besteren batean sorturiko noizean behingo galarak, ezagutzen diren bezain pronto kontabilizatu behar dira.

Printzipio honi jarrai, balantzearen pasiboan, Kontabilitate Plan Orokorreko 14. azpitaldean benetakoa pasibo (gastua benetan gertatu da) edo pasibo probable (gastua seguraski egin da edo egingo da)

Galdu-irabaziak. Enpresak ekitaldian uka dituen emaitzak, txostenak biltzen ditu.



## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)



Hreditoak. Banketxeek enpresei epe luzeko kreditoak eskeini izaten dizkiet.

mordo bat, bere zenbateko zehatzari buruz edo gertatuko den datari buruz zehazgabeak direnak, kontabilizatzen da. Hemen agertzen diren kontuetariko batzuk aipatuko ditugu, garrantzitsuak direlako:

(140) Pentsio eta antzeko bete-beharretarako hornikuntza (ikus 4. eranskina).

(141) Zergetarako hornikuntzak.

(142) Erantzunkizunetarako hornikuntzak.

(143) Konponketa handietarako hornikuntzak.

(144) Lehengoratzefondoa.

(145) Industria-birmoldaketarako hornikuntzak (ikus 5. eranskina).

### **Epe luzeko hartzekodunak.**

Une jakin batzuetan (hedakuntza-aldietan, aldaketa-aldietan, ...) enpresak fondo-kopuru handiak behar ditzake. Hauek, bazkideen ekarpenetatik etor daitezke edo enpresaren jarduerak sorturiko baliabideetatik zein epe luzeko zorpeketetatik.

Epe luzeko inoren fondo haue-

xekek izango dira atal honetan biltzen direnak:

Enpresa handiek jesapen baten jaukipena egin dezakete; jesapena ez da besterik kopuru jakin batenko ordainketak, obligazioak deituak, eskaintzen dituzten titulu batzuetan formalizaturik dagoen epe luzeko kreditu bat baino (balantzearen pasiboko D.I. atala eta Kontabilitate Plan Orokorreko 150. taldeko kontuak).

Banku-entitateek enpresei epe luzeko kredituak normalean eskaintzen dizkie hipotekazko berme bat eratzeko eskatuta (kreditu hauen zenbatekoa, balantzearen pasiboko D.II atalean eta K.P.O.eko 170. taldeko kontuetan agertzen da. Hipotekazko bermea eman baldin bada, gertaera hau derri-gorrez agertu behar da txostenean).

Epemuga, urtea baino epealdi laburragoan duten epe luzeko zor, fidantza eta abarren parte, balantzeko hurrengo elkartzean (epe laburreko hartzekodunenetan) agertu beharko da.

# Epe laburreko hartzekodunak edo pasibo zirkulatzailerak

(pasiboaren epe laburra)

Aipatu berri daukagun horrez

gain, pasibo zirkulatzaileran urtebetekoa baino epemuga laburragoa duten enpresaren zor guztiak biltzen dira. Elkartze honetan, azterketa sindikalean bereziki garrantzi handia duten lau kontusail azpimarratuko ditugu:

Hornitzaileak, Administrazio Publikoekiko zorra, Langileekiko zorra eta epe laburreko banku-zorra.



• **Hornitzaileekiko** zorra, hau da: enpresaren ohizko jarduera garatzeko behar diren ondasunen zuzkitzaileekikoa alegia (K.P.O.eko 400. kontua), pasiboaren E.IV. ataleko 2. apartatuan biltzen da beste kontu batzuekin batera, planak "erosketen edo zerbitzu-prestazioen gatico zorrak" deitzen dion horretan. Hornitzaileekiko zorra truke-letra batean formalizaturik baldin badago

(K.P.O.eko 401. kontua) hornitzaileekiko zor hori 3. atalean agertuko da, Planak ordaindu beharreko efektuek irudikaturiko Zorrak deitzen dion horretan. Hornitzaileek ematen diguten finantzaketa-iturri honek ere finantza-kostu bat du enpresarentzat. Kostu hau, eskurako ordainketak dituen deskontuen galerarena da, hornitzaileen ordainketa 30, 60, 90, ... egun atzeratzeagatik sortzen dena.

Hornitzaileak. Enpresaren ohizko jarduera garatzeko ondasunak zuzkitzen dituztenekiko zorra, kontusail garrantzitsua izan ohi da.

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)



Adminisrazioa. Adminisrazio publikoei diegun zorra normalean sozietateen zergen bidetik, PFEZren atxikipenetik, gizarte-segurantzako kuotetatik, BEZren likidaziotik... sortu ohi da.

• **Adminisrazio Publikoekiko zorra.** Pasiboaren E.V. ataleko 1. apartatuan, K.P.O.ak "Beste zor ez-merkatal batzuk, adminisrazio publikoak" deitzen dion horretan, enpresak adminisrazio publiko ezberdinekin dituen zor guztiak, hala unean-uneoak nola atzeratuak, agertzen dira (sozietateen zergagatik, langileen PFEZren atxekipe-nagatik, gizarte segurantzako kuotengatik, BEZaren likidazio-agatik, ... dituenak). Adminisrazio Publikoekin epe luzera duen zorra ere ager liteke, baina barririk baldin zor atzeratuarentzat ordainketa-hitzarmen geratu bat egongo balitz eta zor atzeratu horrek urtebeteko epemuga baino handiagoa baldin balu. Kontusail honetan saldo handiegia agertzeak argi eta garbi erakusten du enpresan zerbait ez doala ondo.

• **Langileekiko zorra.** Zor hau, pasiboaren E.V. ataleko 4. apartatuan "Beste zor ez-merkatal batzuk, ordaindu gabeko ordainsariak" bezala agertzen da eta langileei atzeratu dakizkiekeen kopuruen batura gehi ekitaldiaren bukaerara zordundu diren paga extra eta oporrei dagokien zorra irudikatzen ditu.

• **Banku-entitateekiko zorra.** Pasiboaren E.II atalean biltzen da epemuga urtebete baino lehena-go duen epe luzeko banku-finantzaketaren partea, gehi enpresaren aldibateko altxortegi-urritasunak konpontzeko enpresak bankuei eskatu dizkien kredituak, gehi kontu korronteko zorpekoak (kontu korronteko zenbaki gorriak), gehi deskontaturik eta epemugatu gabe dauden trukeletrak<sup>6</sup>, gehi kreditu-lerro batean erabili den partea, ...

<sup>6</sup>Indarrean dagoen KPOak uste du truke-letra bat finantza-entitate batean deskontatzen denean; entitate honek letra kobratzen den unera arte mailegu bat ematen diola deskontatzen duen enpresari.

# Enpresaren ziklo **laburra** eta ziklo **luzea**. **Errotazio**-fondoak

Enpresa guztien jarduerak bana daitezke bi ziklotan:



• **ZIKLO LABURREAN**, enpresa horni egiten da (lehengaiak erosi eta gorde egiten ditu eraldatu arte), lehengai horiek eraldatu egiten ditu (denboraldi batean zehar enpresan egon ohi dira eraldatzen), ekoizkin bukatuak gorde egiten ditu saldu arte eta saldu ondoren denboraldi jakin bat beharko du salmentak kobratzeko. Ziklo honek hornitzaileen finantzaketa dauka (erosketa egiten denetik hornitzaileei ordaintzen zaienera denboraldi jakin bat igarotzen delako).

Enpresaren ziklo labur honetan fondoak inbertitzen dira eta horien likidezia behin baino gehiagotan eskuratzen da ekitaldi berdinean.

Zikloak. Enpresaren jarduerak ziklo labur bat eta ziklo luze bat izan ohi ditu.

## ENPRESAREN ZIKLO LABURRA

### AKTIBOAK

Izakinak edo bihurgarri baldintzatua  
Benetako bihurgarria  
Erabilgarria

### PASIBOAK

Pasibo zirkulatzailerak

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

ENPRESAREN ZIKLO LUZEA	
<b>AKTIBOA</b> Aktibo finkoa edo ibilgetua	<b>PASIBOA</b> Fondo berekiak
	Galdagarria epe luzera

ROTAZIO FONDOA		
<b>AKTIBOA</b>	<b>ZIKLO LUZEA</b>	<b>PASIBOA</b>
	<b>ZIKLO LABURRA</b>	
<b>ERROTAZIO FONDOA</b>		

Errotazio-fondoaren kalkulua, bi eratarata egin daiteke:

- \* Ziklo luzetik = Kapital iraunkorrak - Ibilgetu garbia
- \* Ziklo laburretik = Aktibo zirkulatzailea - pasibo zirkulatzailea

<sup>7</sup> Ez beti, zeren enpresa berezi batzuek ukan baitezakete errotazio-fondo negatiboa epe laburreko kaudimena arriskuan jarri gabe. Praktikan eskudiruz kobratzen dute eta hornitzaileei hainbat hilabetera ordaintzen; beraz, aktibo iraunkorrak epe laburreko pasiboekin finantzatzeko luxua har dezakete.

• **ZIKLO LUZEAN**, enpresak egituraturan inbertitzen du (lursail, erai-kuntza, makineria eta abarretan) eta enpresaren bizitzaren amaieran itzultzen diren finantzaketa-iturriak (kapitala eta erreserbak) eta zenbait urtetan galdagarri izango diren beste batzuk (epe luzeko maileguak, arrisku eta gastuetarako hornikuntza, ...) eskuratzen.

### GUTXIENeko FINANTZA OREKA.

Arau honek ezartzen du ezen, fondoak aktibo batean inbertitzen direnean, honek likidezia bere finantzaketan erabilitako fondoan galdagarritasunaren pareko epealdian itzuli behar duela. Makinerian epe laburreko mailegu batekin inbertituko bagenu, kreditua itzultzeko beste fondo makineria horrekin eskuratu orduko helduko litzateke kreditua ordaintzeko epea. Baina kapital-hedakuntza bat erabili izan bagenu, akziodunek makineria horretan egin duten inbertsioa urte bakoitzeko etekinarekin joango ginateke itzuliz urteetan zehar.

Hala ere, ez da hain erraza enpresa errealearen ziklo laburrean arau hau betetzen. Kasurik gehienetan hornitzaileek eta epe laburrera galdagarri diren gainerako pasiboek, hornikuntza, eraldaketa, salmenta eta kobrantzaren ziklo laburreko epealdiaren parte bat baino ez dute finantzatzen. Beraz, epe laburreko finantzaketarik gabeko aktibo zirkulatzailearen zati hori finantzatzeko duena eta, ondorioz, epe laburreko ordainketa guztiak euren epemugan burutzeko, hau

da: enpresa epe laburrera kaudimenduna izateko (ikus hiztegia) behar diren fondo erabilgarriak egotea ahalbideratuko duena, epe luzeko pasiboen zati bat izan behar da.

Aktibo zirkulatzailerak finantzatzeko duen fondo iraunkorren zati horri (aktiboaren ziklo labur honi) **ERROTazio FONDOA** deritzo (ikus hiztegia).

Oro har <sup>8</sup>, enpresa epe laburrera kaudimenduna izateko derrigorrezko baldintza da **ERROTazio FONDOA POSITIBOA IZATEA**.

Beraz, arreta berezia jarri behar diegu errotazio-fondo negatiboei, kasu gehienetan esan nahi duelako enpresak zailtasunak dituela epe laburreko kaudimenean. Ordainketei beren epemugan aurre egiteko ezintasun hau, ordainketa-etenaren epe-egoerarako detonatzailerak izan daiteke.

### **FINANTZA AUTONOMIA.**

Balantzearen egitura ikusita enpresabaten ekonomia eta finantza-erabakiaren autonomiari buruzko ondorioak ere atera ditzakegu. Gehiegizko zorpeketak erabakiak hartzeko maniobra-marjina mugatzen die enpresaren jabeei. Bankuek, hornitzaileek, administrazio publikoek, langileek, ... enpresaren etorkizuneko erabakiak baldintza ditzakete, baldin horietariko batekin enpresak duen pasibo galdagarrien bolumena hazten bada (ez delako emango enpresaren kudeatzaileek nahiko luketen finantzaketa, inbertsio-erabakiak atzertzeraz edo aurreratzeraz behar ditzaketelako, ...).

Hurrengo ratio hau proposatzen dizuegu enpresa beraren denboraldi ezberdinetako eta enpresa desberdinen errotazio-fondoak erkatzeko:

### **Kapital Zirkulatzaileraren Finantzaketa Ratioa = Errotazio Fondoa / aktibo zirkulatzailerak**

**Epe laburreko kaudimena** zehatzago neurtzen duten hurrengo ratioak ere proposatzen dizuegu:

### **Zirkulatzailer-ratioa edo epe laburreko kaudimena = aktibo zirkulatzailerak / pasibo zirkulatzailerak**

Baldin ratioa  $< 1$  == > Errotazio-fondo negatiboa eta, beraz, behar bada kaudimengabezia epe laburrera.

Baldin ratioa  $> 1$  == > Errotazio-fondo positiboa

Bankuek enpresei ematen die kreditua, baldin ratio hau 2 edo gehiago bada.

### **Likidezia-ratioa edo proba azidoa**

#### **Benetako bihurtza + Erabilgarria / Pasibo zirkulatzailerak**

Bat baino handiagoa baldin bada, positiboa da altxortegiko saldo garbia. Epe laburreko mugaeguna duten zorren pezeta bakoitzeko, denboraldi labur horretan kobratuko dugun aktiboan, pezeta bat baino gehiago kobratuko dugu.

Oro har, ratioaren balio hoberenak 0,8tik 1 era bitartekoak jotzen dira <sup>8</sup>.

Hurrengo ratio hau proposatzen dizuegu enpresaren finantza-autonomia neurtzeko:

### **Epe Luzeko Finantza Autonomiaren Ratioa** **Baliabide Berekiak / Aktibo Osoa**

Honek esan nahi du ezen, enpresan inbertituriko pezeta bakoitzeko, zati bat akziodunen finantza-baliabideek finantzaturik dagoela.

Ratioa zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta autonomia gehiago.

Ratioa negatiboa izan daiteke (porrot tekniko);

orduan ezin da 1 baino handiagoa izan.

<sup>8</sup> Ratio honetan saldo handiagoak egoteak esan nahiko luke epe laburrera agian kaudimen larregiko egoerak daudela. Eta errentagarritasuna galtzen egon daiteke.

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

### 1. ERANSKINA

# KONTUSAIL BIKOITZAREN PRINTZIPIOA:

Kontabilitate-egoerak (Balantzea, galdu/irabazien kontua, ...) landu ahal izateko, kontabilitate-eragiketa guztiak erregistratu behar dira. Horretarako bi tresna behar ditugu: kontua eta idazpena.

• **Kontua.** Kontuak ondare-elementu zehatz batean (Adibidez: XX bezeroari dagokion 4300000001 kontuan) edo sarrera edo gastu jakin batean (Adibidez: ZZ langilearen nominaren 6400000001 kontuan) eragina duten kontabilitate-eragiketek egin dako mugimendu guztiak isladatzen ditu.

Kontuak T forma du, eta bi parte ezberdindu ditu: ezker aldekoari "Zorra" deritza eta eskuinekoari "Hartzekoa".



Kontu baten Zorreetan hurrengo zer hauei dagozkien mugimendu guztiak erregistratzen dira:

(I) Aktiboaren gehikuntzak (kontuak aktiboa irudikatzen duenean)

(II) Pasiboaren beharpenak (kontuak pasiboa irudikatzen duenean)

(III) Gastuaren gehikuntza

(kontuak gastua irudikatzen duenean)

Kontu baten Hartzekoan hurrengo mugimendu hauek isladatzen dira:

(I) Aktiboaren beharpenak (aktiboa irudikatzen duen kontua)

(II) Pasiboaren gehikuntza (pasiboaren kontua)

(III) Sarrera bat (sarrera-kontuetan).

ZORRA	HARTZEKOA
4000XXX kontua. IBAI hornitzailea	
(95-12-12) 100.000 pta.	(95-12-9) 100.000 pta.
	(95-12-28) 500.000 pta.

• **Idazpena.** Kontabilitate-eragiketa guztiak idazpen batean transkribatzen dira. Bertan eragiketa horretan parte hartzen duten kontu guztiak zehazten dira, zorreetan ala hartzekoan eragina duten xehetuz. Idazpenak kronologia-ordenan aurkezten dira eta koerlatiboki zenbaturik agertzen.

• **Kontusail bikoitzaren printzipioa.** Printzipio honek zera adierazten du, alegia: kontu bateko Zorreetan egin diren adierazpen guztiek dutela kontrakontusaila beste kontu bateko Hartzekoan egindako gutxienez oharpen batean, eta alderantziz.

Idazpenak, bada, adosturik egon behar dira eta horretarako idazpen bakoitzean Zorreetako mugimendu guztien guztizkoa Hartzekoko mugimenduen guztizkoaren berdina izan behar da.

Kontusail bikoitzeko printzipio honek azaltzen du aktiboa pasiboaren berdina izatea.


ZORRA		HARTZEKOA	
1.500	Altxortegia	Bezeroak	1.500

Adibidez: Bezeroei 1.500 pezetako zor bat kobratu diegu, duela 30 egun erosi zizkiguten merkantzien ordezt. Hemen bi kontuk hartzen dute parte:

1) Bezeroak (Bezero baten zorrak guretzat eskubideak dira eta, beraz, hau aktiboko kontu bat da. Bezeroei kobratzen diegunean,

bezeroen zorra gutxitu egiten da, hots: aktiboa gutxitzen da eta, beraz, oharpena Hartzekoan egin behar dugu) eta

2) Altxortegia (Ordaindu ditugutenean, gure altxortegia, aktiboko kontu bat dena, gehitu egiten da. Aktiboko kontu bat gehitzen dugu eta beraz Zorreetan apuntatzen dugu).



## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

### 2. ERANSKINA

## LEASING-KONTABILITATEA:

• **Leasinga:** Kontratu baten ondorioz eta epealdi jakin batean enpresa batek kuota-mordo bat ordaindu behar du modu ezeztazinean ibilgetu bat erabiltze-agatik eta kontratuaren amaieran kontratuaren objektu den ondasuna erosteko aukera izango du.

Kasurik gehienetan finantza-leasinga, aktibo material bat erosteko<sup>9</sup> finantzaketa-tresna bat izan ohi da. Horregatik, eta jabetza kontratuaren amaierara arte eskualdatzen ez den arren, baldin leasing-kontratuan argi gelditzen bada bere amaieran erosteko aukera<sup>10</sup> erabiliko dela, ibilgetu inmaterialaren parte bezala kontabilizatuko dugu leasing-kontratuari loturiko gauzaren balioa. Kontratua egiteko unean hurrengo idazpen hau egin ohi da:

ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(217) Finantza-akurapenaren araubideko ondasunen gaineko eskubideak. (272) Zenbait ekitalditan banatzeko gastuak.		
....		(173) Epe luzeko ibilgetuaren hornitzaileak (523) Epe laburreko ibilgetuaren hornitzaileak	.... ....

Pasiboan, kontratua egin den unean ordaindu behar ziren kuoten guztizkoagatik gehi erosteko aukeragatik sortzen den epe luzeko eta epe laburreko zorra batzen duten (173) kontua eta (523) kontua agertzen dira.


Aktiboan, ibilgetu inmaterialean sarturiko 217. kontuak leasingeko ondasunaren gainean ukanen dugun eskubidea irudikatzen du. Kontratuaren objektu den ibilgetu horren erosketa-prezioaren berdinkide den balioa ukanen du. Epealdi bakoitzaren amaieran hurrengo hau amortizatzen da:

ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(681) Ibilgetu inmaterialari egindako zuzkidura	281) Ibilgetu inmaterialaren amortizazio metatua.	....

Aktiboan, zenbait ekitalditan banatzeko gastuen taldeko 272. kontua dago. Honek pasiboko (173) gehi (523) kontuetako balioaren eta aktiboko (217) kontuko balioaren arteko kendura irudikatzen du. Urtero eramaten da gastuetara, finantza-irizpide bati jarrai.

<sup>9</sup>Gainera abantaila fiskalak ere baditu.

<sup>10</sup>Erosteko aukera erabiltzeari buruz ez da egoten dudarik, kontratuaren objektu den ibilgetuaren kontabilitate-balio garbia, kontratuaren amaieran, bere prezioa baino txikiagoa denean.



ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(669) Beste finantza-gastu batzuk	(281) Zenbait ekitalditan banatzeko gastuak	....

Leasingaren kuota bat ordaintzen denean, hurrengo idazpena egiten da:

ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(523) Epe laburreko ibilgetuaren hornitzaileak	(57) Altxortegia	....

Argi ez balego enpresak erosteko aukera erabiliko duenentz, leasinga akurapen arrunt bezala kontabilizatuko litzateke. Enpresak jokatu luke kontratuaren objektu den ondasuna errentan hartuta balu bezala. Kuota bakoitza ordaintzen denean hurrengo idazpena egingo litzateke:

ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(621) Akurapenak eta kanonak	(57) Altxortegia	....

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

### 3. ERANSKINA

# KAPITAL SOZIALA, ORDAINDU GABEKO KOPURUAK:

Sozietate anonimo, mugatu, anonimo laboral eta abarren kapital sozialak bazkideen erantzunkizunari jartzen zaion muga bat suposatzen du.


Hala ere, kapital sozialak harpidetzeak (erantzunkizuna muga horretaraino hartzeak) beti ez du esan nahi kapital harpidetu guztia ordaindu denik.

Zehazki, sozietate anonimoen kasuan, legeak gutxienez izendatuaren %25a eta akzioen jaulkipen-sariaren %100a ordaintzea eskatzen die.

Kapital soziala bazkideek harpidetzen badute eta ordainketa guztia egiten ez badute aktiboan hurrengo kontuak agertuko dira:

K.P.O.eko 19. taldeko kontuak, aktiboko A atalean, aktiboaren ziklo luzearen barruan, ordaindu gabeko kopuru horien ordainketa enpresak eskatzen ez duenean edo, eskatzen badu ere, epe luzean galdatu duenean.

Aktiboko D ataleko I apartatuan, aktiboaren epe laburraren barruan, K.P.O.eko 558. kontuan, ordaindu gabeko kopuru horien ordainketa enpresak akziodunei



epe laburrean ordaintzeko galdatzen dienean.

Enpresaren eraketatik urte batzuetara edo kapital-hedakuntzatik urte batzuetara saldoak 19. taldeko kontuetan izatea, ez da seinale ona bazkideek enpresarekin hartu duten eginkizunari dagokionez.

## 4. ERANSKINA

# (140) PENTSIO ETA ANTZEKO BETEBERRETARAKO HORNIKUNTZA:

Enpresak jubilazio-plan bat konpainia batekin kontratatzen duenean, bere urteko kontuetan ez du beste ezer kontabilizatu behar epealdi horretan aseguru-konpainiari ekarritako kuotek suposatzen dioten gastua baino, eta balantzearen pasiboan ez da agertuko inolako kopururik. Aseguru-konpainiari egiten dion ordainketa bakoitzean hurrengo idazpen hau egingo du:

ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(643) Pentsio-sistemei egindako ekarpenak	(57) Altxortegia	....

Jubilatuei ordainketak bere ondareakin egitea bermatuta, enpresak berak bere jubilazio-plan propioa sortzen duenean, enpresak fondoa eratzeko, hurrengo idazpena egingo du epealdi bakoitzean aktuario-planak zehazten duen arabera.

ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(643) Pentsio-sistemei egindako ekarpenak	(140) Pentsio eta antzeko betebharretarako hornikuntza	....

Kasu honetan, jubilatutako bati ordainketa bat egiten zaion bakoitzean, hurrengo idazpen hau egingo da:

ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(140) Pentsio eta betebharretarako hornikuntza	(57) Altxortegia	....

Urtearen bukaeran, (643) eta (140) kontuek hurrengo esanahi hau ukanen dute:

(643) Pertsonal-gastu bezala agertuko da galdu/irabazien kontuan. Kontu honek, enpresak kanpoko edo barruko fondoari epealdian egin izan zizkion ekarpenak irudikatzen ditu.

(140) Enpresan barruko fondo bat eratu den kasuetan epe luzera galdagarri den pasiboan agertuko da. Urtearen bukaeran bere saldoa, fondoak funtzionatu duen urteetan zehar enpresak egin dituen ekarpenen eta urte horietan fondoak eman dituen prestazioen arteko kendura izango da.


5. ERANSKINA

INDUSTRIA-BIRMOLDAKETARAKO  
HORNIKUNTZA (145):



Enpresa batek birmoldaketa-prozesu bat burutu nahi duenean, honek gastu ugari ekarri ohi ditu. Kontabilitate-printzipioei jarrai (zuhurtasunarena bezeriki), enpresak gastu balioetsi horiek kontabilizatu behar ditu birmoldaketa hori burutzea erabakitzen den ekitaldiko gastu bezala eta hurrengo idazpen hau egin birmoldaketa-gastuak benetan burutzen diren arte.

ZORRA		HARTZEKOA	
.....	(6XX) Dagozkien gastuen kontuak	(140) Industria-birmoldaketarako hornikuntza	.....



# hiztegia



## **KONTABILITATE OROKORRA ETA KONTABILITATE ANALITIKOA EDO KOSTUENA.**

Guk kontabilitate orokorrarekin zerikusia duten zenbait ideia jorratu baditugu ere, beste kontabilitate-adar batzuk ere badirela esan behar da (kudeaketaren kontabilitatea, ildo estrategikoarena, kostuena...)

Kontabilitate orokorraren edo finantza-kontabilitatearen bidez enpresak burutzen dituen ekonomia-eragiketa guztiak jasotzen dira. Horri esker, enpresaren diru-soberakinari buruzko informazioa lortzen du, enpresak zorren bat izan dien guztiei ordaindu ondoren (langileei, hornitzaileei, akziodunei, hazienda publikoari,...).

Kostuen kontabilitateari dagokionez, kostuari buruzko informazioa ematen du inbentarioen edo izakinen balioa eta kanpoan erosten ez diren (enpresak berak ekoiztu dituen) ibilgetuko ondasunen balioa zein den jakiteko, eta enpresak bere ekoizkin bakoitzetik ateratzen dituen errendimenduen kalkulua ahalbidetzen digu.

## **EKOIZPEN KOSTUA.**

Lehengaien eta ekoizpenean erabilitako beste kontsumigai batzuen erosketa-prezioaren, gehi ondasunei zuzenki dagozkien kostuen, gehi ekoizkinari berari dagozkion zeharkako kostuen arrazoizko zatiaren (hemen kostuen kontabilitateak eskaintzen dizkigun datuetara jo beharra daukagu) guztizkoa da.

## **ENPRESA ELKARTUA.**

Kontabilitate Plan Orokorraren Sarreraren III. atalean zehazten denez, enpresaren batek beste baten gainean eragin nabarmena duenean (baina taldeko sozietateetan gertatzen den menpetasuna baino eragin apalagoa) hartuko dira enpresa elkartutzat. Enpresa elkartutzat hartzen denaren kapitalan gutxienez %20ko partaidetza ematen denean -edo %3koa, enpresa horrek burtsan kotizatzen baldin badu-, orduantxe jotzen du K.P.O.-ak halako eragina ematen dela.

## **TALDEKO ENPRESA.**

Kontabilitate Plan Orokorraren Sarreraren III. atalean zehazten denez, enpresa jakin bat beste baten talde barrukotzat joko da enpresa biok menpetasun-erlazioz lotuta daudenean (batak bestearen kapitalaren gehiengoa duenean, edota Administrazio Kontseiluko kideen gehiengoa izendatzeko adina kapital duenean), edo enpresok beste entitate edo pertsona fisiko baten menpean daudenean zuzenki nahiz zeharka.

## **MERKATAL FONDOA.**

Izen honek ondasun inmaterial multzo bat adierazten du: bezeria, enpresaren izena, egiten jakitea, langileen koalifikazioa,... eta beste halako zenbait, baina gauza horiek guztiok balioaren bat duten heinean enpresa bat erosterakoan. Sozietate bat erosi eta

beronen balio teorikoa (ondare garbia) baino prezio altuagoa ordaintzen denean baizik ez da kontabilizatzen.

### **ERROTazio FONDOA.**

Epe luzeko inbertsioa (aktiboaren ziklo luzea) finantzatzeko zurgatzen ez diren kapital iraunkorren zatia da eta, beraz, epe laburreko inbertsioa finantzatzeko erabiltzen dena.

### **MERKATUGAIA.**

Enpresak erosi eta inolako eraldaketarik gabe salgai jarriko diren salgaiak.

### **KONTABILITATE PLAN OROKORRA.**

Kontabilitate Plan Orokorra abenduaren 20ko 1990/1.643 Erret Dekretuz onartu zen, 1973koaren orde. Sozietate eta kontabilitate alorreko Ildo Komunitarioen arabera egokituz zetorren merkataritza legeriaren araudi-garapen bat burutzen du 1990ko Planak kontabilitate arloan. K.P.O. derrigorrez eta orokorki ezarri beharrekoa da enpresa guztientzat eta honako atal hauek osatzen dute:

Lehenengoa: Kontabilitate Printzipioak

Bigarrena: Kontu-koadroa

Hirugarrena: Definizioak eta kontabilitate erlazioak

Laugarrena: Urteko Kontuak

Bosgarrena: Balorazio Arauak

### **EROSKETA PREZIOA.**

Fakturaren eta aktiboa funtzionamenduan jartzeko egoeran aurkitu arte sortzen diren gastu eransgarrien zenbatekoa (garraioa, aseguruak, instalakuntza, baita ere finantza-gastuak,...), funtzionamenduan jartzen den unean aktiboak duen merkatu-balioaren mugaraino.

### **ZUHURTASUN PRINTZIPIOA.**

Kontabilitate Printzipioak kontabilitate jarraibideak halako modu jakin batez interpretatzeko argibide sorta bat dira. Kontabilitate Plan Orokorren lehen atalean ageri dira eta enpresaren kontabilitatea egiteko derrigorrez aplikatu behar dira kontabilitate-printzipio horiek. Zuhurtasun Printzipioa: "Ekitaldiaren itxierako datan benetan buruturiko mozkinak besterik ez dira kontabilizatuko. Ostera, garaiko ekitaldian edo aurreko ekitaldiren batean jatorria izan eta aurrikus daitezkeen arriskuak eta sor daitezkeen gastuak ezagutu bezain laster kontabilizatu behar dira; horretarako, batetik itzulgarriak edo daitezkeenak eta bestetik buruturikoak edo itzulezinak bereizi behar dira..."

### **RATIOA.**

Honako haxe baino ez da ratioa, bi aldagairen arteko zatidura. Kantitateak termino erlatiboetan aurkezteak (bateko edo ehuneko hainbestetan) enpresa desberdinen emaitzak alderatzea ahalbidetzen du. Ratioak zenbakitzailearen kantitatearen ehuneko adierazten digu izendatzailearen aldagaiarekiko.

### **KAUDIMENA.**

Enpresa batek bere zorrei aurre egiteko duen ahalmena da.

**Kaudimen osoa:** enpresak bere aktibo guztiak likidatuko balitu, bere zor guztiei erantzuteko moduan egongo litzateke.

**Epe laburreko kaudimena:** enpresak epemugako datan ordain ditzake zorrak, bere ohizko jarduera normaltasunez garatzeko behar dituen elementuak galzorian jarri edo saldu beharrik gabe.

# ariketen soluzioak

## 1. Ariketa:

1.1.-

### AKTIBOA

Lursailak.....	10
Makineria.....	20
Izakinak.....	50
Bezeroak.....	86
Kontu korrantea bankuetan.....	20
AKTIBOA GUZTIRA.....	186

### PASIBOA

Kapital soziala.....	100
Erreserbak.....	25
Epe Luzeko Zorra bankuei.....	35
Gizarte Segurantza.....	16
Aparteko ordainsarien zorra.....	10
PASIBOA GUZTIRA.....	186

Ondoko hauek ez dira balantzeko kontusailak, baizik eta galdu/irabazien kontu barnekoak:

* Uztailako nominak.....	23
* XX bezeroari faktura.....	150

1.2.- Enpresa horren epealdi horretako ondare garbia hauxe da:

Aktiboa Guztira (186) - Pasibo Galdagarria (35+16+10) = 125

Aldagaiaren esanahia honako hau da: Enpresaren aktibo osoa ken pasibo galdagarria. Hots, enpresaren irabazi garbia edo horri dagokion balio teorikoa.

1.3.- Kaudimen osoaren ratioa =  $186/61 = 3,0492$ . Enpresa hau porrot teknikitik (ratioa = 1) oso urruti dago.

1.4.- Lursailak 10

Makineria 20

## 2. Ariketa:

\*1\* Okerra

\*2\* Zuzena

\*3\* Okerra

\*4\* Zuzena

\*5\* Okerra

\*6\* Zuzena

## 3. Ariketa:

1. Okerra

2. Okerra

3. Okerra

4. Zuzena

5. Okerra

6. Zuzena

## 4. Ariketa:

AKTIBO FINKOA, AKTIBOAREN ZIKLO LUZEA

Lursailak 10

Makineria 20

GUZTIRA 30

PASIBOAREN ZIKLO LUZEA. KAPITAL IRAUNKORRAK

Kapital soziala 100

Erreserbak 25

Bankuei E.P. zorrak 35

GUZTIRA 160

AKTIBO ZIRKULATZAILEA. AKTIBOAREN ZIKLO LABURRA

Izakinak 50

Bezeroak 86

Kontu korranteak bankuetan 20

GUZTIRA 156

PASIBO ZIRKULATZAILEA. PASIBOAREN ZIKLO LABURRA

Gizarte Segurantza 16

Aparteko ordainsarien zorra 10

GUZTIRA 26

ERROTAZIO FONDOAK

Ziklo luzetiko kalkulua:

Kapital iraunkorrak - Aktibo finkoa =  $160 - 30 = 130$

Ziklo laburretiko kalkulua:

Aktibo zirkulatzaila - Pasibo zirkulatzaila =  $156 - 26 = 140$

RATIO ZIRKULATZAILEA EDO EPE LABURREKO KAUDIMEN RATIOA.  $156/26 = 6$ .

Bankuek bai emango lioketela mailegua enpresa horri.

# ariketak

## 2.

### Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

#### 1. ARIKETA

1.- Osa ezazu balantze hau, ondoko kontusailak aktiboan eta pasiboan kokatuz (bakoitza dagokion lekuan) modu ordenatuan; hots, aktiboa bihurtgarritasun gutxiagotik gehiagora eta pasiboa galdagarritasun gutxiagotik gehiagora.

Enpresak Gizarte Segurantzarekin duen Zorra.....	16
Kapital Soziala.....	100
Izakinak.....	50
Erreserbak.....	25
Lursailak.....	10
Uztaileko nominak.....	23
Uztaileko aparteko ordainsariaren zorra.....	10
Makineria.....	20
X Bankuari Epe Luzeko Zorra.....	35
X Bankuko kontu korrontearen Saldoa.....	20
XX bezeroari faktura.....	150
Bezeroen zorra.....	86

2.- Kalkula ezazu enpresaren Ondare Garbia. Azaldu aldagai honen esanahia.

3.- Atera eta komenta ezazu enpresaren epealdi honetako kaudimen ratioa.

4.- Aktiboa osatzen duten kontusailetatik, zeintzuk dagozkio ziklo luzeari?

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

### 2. ARIKETA

---

Seinala ezazu ondoko baiezpene hauek zuzenak ala okerrak diren:

\*1\* ERAIKI higiezin-etxeak pisu bat dauka salgai Aldapa 2, 1.A kalean. Bere jabetzako pisu hori ibilgetu gisa kontabilizatu beharko du 97-12-31n.

---

\*2\* EKONOMIKOAK aholku-enpresak Aldapa 2, 1.B kalean ditu bulegoak. Bere jabetzako pisu hori ibilgetu gisa kontabilizatu beharko du 97-12-31n.

---

\*3\* Kontabilitate-programa berri bat erosi dugu gure ordenadorerako. Ibilgetu materialaren balioa gehituz kontabilizatu beharko dugu 97-12-31n.

---

\*4\* Koloretako laser inprimagailu bat erosi dugu. Beraz, gure ibilgetu materialaren balioari erantsi behar diogu.

---

\*5\* KRISIALDIAK S.A. enpresak galerak izan ditu ekitaldi honetan. Galera horien aurrean, eta ibilgetuak, zertxobait zaharkitua dagoen arren, oraindik urte askotan zehar balioa kontutan hartuz, aurten amortizaziorik ez zuzkitzea erabaki du, baizik hobe espero duten datorren urterako uztea.

---

\*6\* KRISIALDIAK enpresak langile batzuk kaleratu ditu bere bideragarritasun-plana aplikatuz. Langile-murrizketa honek ondorio positiboak izango dituela uste du hurrengo ekitaldietako emaitzetan. Kontabilitate Plan Orokorrak aukera hori aurrakusten ez duen arren, enpresak uste du indemnizazio horiek zenbait ekitalditan banaturiko gastu gisa kontabiliza ditzakeela.

---

## 3. ARIKETA

---

Seinala ezazu baiezpen zuzena ala okerra den:

1. Dena delako enpresa mota izan, enpresariaren erantzukizuna beronen ekarpenera mugaturik dago.

Zuzena

Okerra

2. Kapitala eta erreserbak, enpresaren beraren kapitalak direnez, aktiboko altxor-kontuetan ageri dira.

Zuzena

Okerra

3. Pasiboko hornitzaileen kontuan agertzen zaigu ekitaldian zehar hornitzaileei egin diegun gastua.

Zuzena

Okerra

4. Pasiboko hornitzaileen kontuan adierazten zaigu enpresak hornitzaileekin duen zorraren ordaindubako zatia.

Zuzena

Okerra

5. Enpresak duela bi urteko zorra du Gizarte Segurantzarekin. Urtebete baino gehiagoko epealdia denez, eta urtebete baino epealdi luzeagoak "epe luze" direnez, zor hori kapital iraunkorren artean, epe luzera galdatzeko pasiboetan, bilatu behar dugu.

Zuzena

Okerra

6. Enpresak azken sei hilabeteetako kuota patronalei dagokien zorra du Gizarte Segurantzarekin. Honekin akordio bat adosten du kuota horiek urte bi barru ordaintzeko. Zor hau kapital iraunkorren atalean bilatu behar dugu, epe luzera galdatzeko pasiboetan.

Zuzena

Okerra

## 2. Enpresaren egoera ekonomikoa (balantzea)

### 4. ARIKETA

---

Zati ezazu 1. ariketako enpresaren aktiboa eta pasiboa ziklo luze eta laburrean.

Kalkula ezazu ERROTAZIO FONDOA ZIKLO LUZETIK ETA ZIKLO LABURRETIK. Kalkula ezazu EPE LABURREKO KAUDIMEN RATIOA eta azal ezazu Banku batek enpresa horri mailegurik emango liokeen ala ez.